



EIBARKO ERREBALGO UDAL AZOKAREN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

I Titulua. Izaera Orokorreko xedapenak

I kapitulua. Errebalgo Udal Azoka

1. artikulua

1. Ordenantza honek Eibarko Errebalgo udal azokaren zerbitzu publikoaren oinarritzko araubide juridikoa ezartzea du xede.
2. Udal merkatuek funtzio garrantzitsua dute tokiko elikagai freskoen merkataritza tradizionalaren eta hiriko bizitza soziala sustapenean, eta, horrekin batera, lehia librea bultzatzen dute, prezioen ekonomia eta kontsumitzaileei prestazio egokia emateko bitarteko gisa.

2. artikulua

Merkatuaren zerbitzu publikoa udal erantzukizun bat da, indarrean dagoen legedian jasotakoaren arabera. Nolanahi ere, Udalak honako eginkizun hauek izango ditu beti: administrazioaren esku-hartzea, osasunaren zaintza, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak gainbegiratzea, eta legez aitortzen zaizkion eskumenak baliatzea eta betetzea dakarten beste edozein eginkizun.

3. artikulua

1. Errebalgo Udal Azoka, funtzionamenduari eta administrazio-araubideari dagokienez, ordenantza honetan ezarritakora egokituko da, eta baita toki-araubidearen arloan indarrean dagoen legedira, herri-administrazioen ondareari buruzkora, sektore publikoko kontratuei buruzko legedira, eta aplikatu beharreko gainerako arauetara.
2. Halaber, aplikagarri izango dira establezimendu eta espazio publikoak erabiltzeko administrazio-emakidak eta baimenak esleitzeko onartzen diren baldintza-agirietako aurreikuspenak. Hori guztia, saltoki horietan garatzen diren



jarduera espezifikoetan aplikagarri diren legezko eta erregelamenduzko xedapenak alde batera utzi gabe.

3. Ordenantza honen erregulazio-xede den gaiari gainerako udal xedapen arauemaileak aplikatuko zaizkio, betiere ordenantza honen aurka egiten ez duten alderdi guztietan.
4. Ordenantza honen xedapenen osagarri gisa, Errebalgo Udal Azokak, bere ezaugarri propioetan oinarrituta, barne-funtzionamendurako araudi bat eduki ahal izango du, Eibarko Udalak onartu beharrekoa.
5. Prozedura-araubideari dagokionez, udal administrazioaren jarduna aplikatu beharreko legezko eta erregelamenduzko xedapenetara egokitu beharko da, eta horrek esan nahi du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikulua araberak, Administrazioak berriazko ebazpenik ematen ez badu, interesdunek egindako eskabideak ezetsi egingo direla, jabari publikoari buruzko ahalmenei dagokienez.

II. Kapitula. Errebalgo Udal Azokaren postuak eta instalazio osagarriak.

4. artikulua

Saltokiak, merkataritza-guneak, instalazio osagarriak eta Errebalgo Udal Merkatua osatzen duten gainerako elementuak, eta, zentzu horretan jabari publikoko ondasuntzat hartzen direnak, besterenezinak, enbargaezinak eta preskribaezinak dira. Emakida- eta baimen-eskubideen enbargoa lortzen duten hartzekodunak ere ordenantza honetako zehaztapenen mende geratuko dira, eta, hala badagokio, merkatuaren barne-erregelamenduan ezarritakoaren mende.

5. artikulua

1. Saltokiek eta merkataritza-jarduerara zuzendutako gainerako espazioek honelako sailkapena izango dute:

- a) Haien konfigurazioagatik, saltokiak eta merkataritza-guneak.
- b) Adjudikazio-baldintzengatik, finakoak eta bereziak.



2. Saltoki edo postu kontsiderazioa dute xehekako salmenta publikora bideratutakoek, beren artean itxiturek, tabikeek edo eraikuntzako beste obra finko batzuek berezita daudenek. Ondorio guztietarako, unitatea saltokiak osatzen du, nahiz eta praktikan beste postu batekin edo batzuekin lotuta egon daitekeen.

3. Merkataritza-gunetzat hartuko dira merkaturako azalerak, baldin eta xede hauek badituzte: sasoiko jeneroaren salerosketa egitea, bestelako produktuak erakustea edota saltzea edo bestelako jarduerak egitea, jarduera horiek kontsumitzaileen eta erabiltzaileen onerako badira zuzenean edo zeharka, edo merkatuaren beraren kudeaketaren eta sustapenaren onerako. Ondorio guztietarako, unitatea okupazio-m²-ak zehazten du.

4. Finkotzat joko dira merkataritza-gune batean urtebetetik gorako aldietan postu edo espazio jakin bat modu pribatiboan erabiltzeko eskubideak ematen dituzten emakidak, betiere legez ezarritako gehieneko epea gainditu gabe.

5. Berezitzat joko dira arriskugarritasunagatik, erabileraren intentsitateagatik edo antzeko beste arrazoi batzuegatik izaera berezia duten jabari publikoko okupazioak. Bereziki, halakotzat hartuko da merkataritza-guneen zati bat okupatzea, sasoiko elikagaiak postu desmuntagarrien bidez saltzeko.

6. artikulua

Eibarko Udalak aurreko artikuluetan adierazitakoen osagarriak diren instalazioak eduki ahal izango ditu, publizitatea egitera edo kontsumitzaile eta erabiltzaileei eta titular emakidadun eta baimenduei informazio edo zerbitzu osagarriak ematera bideratuak.

7. artikulua

Gutxienez 6 saltokietatik 4 elikagaiak saltzeko erabili beharko dira.

8 artikulua



Eibarko Udalari dagokio Errebalgo Udal Merkatuko saltoki bakoitza zer salmenta-espezialitatetara bideratuko den zehaztea, bai eta espezialitate horiek aldatzea ere. Merkataritza-guneetan egin daitezkeen izaera komertzialeko edo bestelako merkataritza-jarduerak Eibarko Udalak baimenduko ditu aldez aurretik; Udalak zaindu beharko du uneoro, jarduera horiek Errebal Udal Merkatuaren azken helburuarekin bateragarriak izan daitezen eta ondo funtzionatzen dezaten. Betiere gune horietan bermatu beharko da nahikoa toki dagoela sasoiko eta tokiko elikagaiak saltzeko jarduerarako.

III. Kapitulua. Salmenta saltoki desmuntagarrietan.

9. artikulua

Saltoki desmuntagarrietako salmenta sasoiko elikagaien tokiko ekoizleentzat da.

10. artikulua

Honako hau hartzen da tokiko ekoizle eta ohiko saltzailentzat:

- pertsona fisiko edo juridikoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Nekazaritza Ustiategien Erregistroan (REA) nahitaez inskribatutako lehengaien ekoizpeneko ustiategi baten titularra edo haren zati bat duena.

11. artikulua

Hona hemen zer den gauza bakoitza:

- Nekazaritzako produktua: Salmenta-lizentziaren titularrak EAEn kokatutako ustiategian bertan ekoiztu edota egindako sasoiko nekazaritza-produktuak.
- Tokiko ekoizlea/baserritarra: EAEn kokatutako ustiategian bertan ekoiztutako edota eraldatutako produktuak saltzen dituen pertsona.

Era horretako salmentan jarduteko udal baimena beharko da; baimen hori transferiezina izango da eta gehienez ere urtebeteko indarraldia izango du, lau urtera arte luza daitekeena.



12. artikulua

Nekazaritzako produktuak dira:

1. Frutak, barazkiak, barazki freskoak eta fruitu lehorrak.
2. Barazkien kontserbak.
3. Arrautzak.
4. Ogia, ogi bereziak eta gozogintzako produktuak.
5. Esnea eta esnekiak.
6. Haragia eta eratorriak.
7. Eztia eta erlezaintzako produktuak.
8. Basa-perretxiko eta -onddoak eta haztegiakoak.
9. Baserrietan hazitako barraskiloak (barraskilo-hazkuntza).
10. Sukaldaritzako landare aromatikoak.
11. Landare apaingarriak.
12. Haziak eta landareak.
13. Lore jangarriak.

Ontziraturako espezie mikologikoak behar bezala identifikatuta egongo dira, eta bidezkoa den osasun-erregistroa eduki beharko dute.

Noizbehinka, eta Eibarko Udalak onartu ondoren, beste baserritar baten produktuak saldu ahal izango dira, baldin eta behar bezala identifikatuta badago, honelako produktuak Errebalgo azokan saltzeko baimenaren titularra bada, eta ezarritako baldintzak betetzen baditu.

13. artikulua

Era horretako produktuen salmentan ezingo dute parte hartu ez banatzaileek ez komertzializatzaileek ere.

14 artikulua

1. Udalaren baimena pertsonala eta transferiezina da; hala ere, titularraren familiakoek edota behar bezala baimendutako langileek erabili ahal izango dute, ordenantza honen 44, 45 eta 46 artikuluetan aurreikusitako baldintzetan.



2. Baimenak zuzenean emango zaizkie hala eskatzen dutenei, betiere eskatutako baldintzak betetzen badituzte, salbu eta, edozein arrazoiengatik, haien kopurua mugatuta badago; kasu horretan, lehia-araubidean emango dira, eta, hori bidezkoa ez bada, eskatzaileei baldintza berezirik baloratu behar ez zaielako, zozketa bidez emango dira, baimenak arautzen dituzten baldintzetan beste zerbait ezarri ez bada.
3. Udal baimenaren indarraldiko epea urtebetekoa izango da gehienez, eta iraungitze-data abenduaren 31 izango da. Baimena lau urtez luzatu ahal izango da gehienez ere.
4. Udal baimena lortzerakoan, titularrari identifikazio-txartel bat emango zaio eta gaiari buruzko udal araudiaren kopia bat.

15. artikulua

Honako kasu hauetako edozein izan daiteke Udalak lizentzia baliogabetzeko eta indarririk gabe lagatzeko baldintza:

- a) Titularrak baja eskatzea.
- b) Titularraren heriotza edo, hala badagokio, enpresa desegitea.
- c) Udal baimena emateko eskatutako baldintzak galtzea.
- d) Araudi honetan baimentzen ez diren produktuak saltzea.
- e) Produktuak saltzea salmentarako esleitutako tokitik kanpo.
- f) Urtea amaitzea.

16. artikulua

Baimenak urtero berriztuko dira; horretarako, eskatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Ez dira baimenak berriztuko, baldin eta titularrak honako kasu hauetan sartuta badaude:

- a) Saltokia azpierreduan edukitzea.
- b) Esleitutako aldi, 5 aste jarraian edo 10 txandaka merkatura ez joatea, inolako justifikaziorik gabe.



- c) Dagozkion tasak ez ordaintzea, premiamenduzko hiru prozeduratan sartuta eognik.
- d) Ordenantza honetan jasotakoa ez betetzea, horren ondorioz kontsumitzaileari kalte egin bazaio.
- e) Osasun-arloan aplikatzekoa den araudia ez betetzea, hargatik eragotzi gabe arau-haustea eragin duen administrazio-zehapena.
- f) Agintari edo agenteek ordenantza honetan ezarritakoa zaintzeko eskatzen dituzten datuak emateari edo informazioa lortzeari uko egitea, bai eta informazio okerra, osatugabea edo faltsua ematea ere.

17. artikulua

Baimenen titularrek honako eskubideak edukiko dituzte:

- a) Udaltzaingoaren babesa eskatzea, saltokia eman zaion jarduera egin ahal izateko.
- b) Erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztea azokaren funtzionamendua hobetzeko.
- c) Udalak merkatu-eguna aldatzea erabakitzen badu jaiegun batekin edo ezohiko ospakizun batekin kointziditzeagatik, eskubidea izango dute erabakia astebete lehenago ezagutzeko.

18. artikulua

Baimenen titularrek honako obligazioak bete beharko dituzte:

- a) Merkaturatutako produktuen berariazko araudietan ezartzen diren baldintza higieniko-sanitarioak eta bestelakoak betetzea.
- b) Beharrezkoak diren aseguruak kontratatzea jardueran aritzean gerta daitezkeen arriskuak estaltzeko.
- c) Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak merezi duten begirunearekin tratatzea.
- d) Istilurik ez eragitea.



- e) Ordenantza hau eta jarduerarekin lotutako legedia betetzeko udal langileek emandako agindu guztiak betetzea, azokaren funtzionamendu egokia bermatzeko.
- f) Pisatu edo neurtu beharrekoak diren artikuluak dituzten saltokiek arauzko baskula eta metroa eduki beharko dituzte. Eibarko Udalak esleitutako langileek egindako neurketen zehaztasuna egiaztatu ahal izango dute.
- g) Lan-jarduna amaitu ondoren, saltokia garbi geratu beharko da. Saltoki bakoitzaren jardunean sortutako hondakinak, ahal dela, horretarako jarritako edukiontzietara bota beharko dira.
- h) Espazioaren garbiketa udal langileen ardura izango da, bai eta mahaiak desmuntatu eta biltegitratzea ere.

19. artikulua

Jabari publikoko okupazioagatik ordaindu behar diren tasak, dagokion ordenantza fiskalak zehaztutakoak izango dira, saltokiaren eta okupatutako ezaugarrien arabera.

Nahiz eta saltokiaren titularra ez bertaratu azoka-egun ohiko batean, dagokion kuota ordaindu beharko du.

20 artikulua

Baimen hauetarako aurreikusi ez den guztian, aplikatuko den araubide juridikoa postu finioen jabari publikoaren gainean administrazio-emakiden titularrei dagokiena izango da.

II. Titulua. Jabari publikoaren emakida-eskubideak

I. Kapituluak: Xedapen orokorrak

21. artikulua

1. Errebal Udal Azokan merkataritza-guneetan saltoki finakoak edo espazioak modu pribatiboan erabiltzeko emakida-eskubideen titular izan ahalko dira gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta indarreko legeriak ezarritako ezintasun- edo bateraezintasun-kausetako bakar batean ere sartuta ez badaude.



2. Emakida-eskubideak aitortzeak ez ditu titularrak salbuesten kasuan kasuko jarduera espezifikoa gauzatzeak eskatzen dituen baimenak, altak edo lizentziak eskuratzetik.

3. Emakidaren esleipenak eskubidea ematen dito titularrari merkataritza-guneetan zehaztutako postu edo espazioak modu pribatiboan erabiltzeko, baimendutako xedeetarako eta ezarritako denbora-tartean. Adjudikazioaren tituluak emakida-eskubideko eskumenak baliatzeko beharrezkoak diren baldintzak, eskakizunak, datuak eta zehaztapenak jasoko ditu.

22. artikulua

Ordenantza honetan ezarritako baldintzekin eta baldintza-agirietan kasuan-kasuan zehaztutakoekin, merkataritza-guneetako postuen eta espazioen gaineko emakida-eskubideen titulartasuna honela eskuratzeko da:

- a) Plaza hutsagatiko emakidak adjudikatzea enkante, norgehiagoka edo zuzeneko esleipenaren bidez, kasuan kasuan aplikatzekoa den araudiak ezarritako baldintzetan.
- b) Eskubideen subrogazioa heriotzagatik.
- c) Inter vivos egintzen bidezkoa eskualdaketa.

II. Kapituluak: Emakidak esleitzea leku bat hutsik geratzeagatik

23. artikulua

Aplikazio orokorreko irizpide gisa, eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa alde batera utzi gabe, plaza hutsagatiko emakida finakoak norgehiagoka-prozeduraren bidez esleituko dira, eta, salbuespen gisa, enkante bidez egingo da, kontuan hartu beharreko irizpide bakarra ekonomikoa denean. Prozedura baten edo bestearen erabilera zehazteko irizpideek berriaz agertu beharko dute deialdian, eta adjudikazioduna aukera onena dela ziurtatzera bideratuta egongo dira, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei zerbitzu hobea bermatzeko, enpresa- eta merkataritza-kaudimenaren berme handiagoak ziurtatzeko, jardueraren jarraitutasunaren berme handiagoak izateko, Merkatuaren merkataritza-sustapenerako ekarpen hobek bermatzeko eta egoera bakoitzean egokiak diren beste edozein baldintza ziurtatzeko.



24. artikulua

Hutsik geratzen diren postuak betetzeko 23. artikuluan adierazitako lehiaketa- edo enkante-moduen arabera egindako deialdi zehatz bakoitzak, lizitatzailerek bete beharreko baldintzak, dokumentazioa, epeak eta betekizunak jasoko ditu; publizitatearen, lehiaren eta administrazio-arloan aplikagarriak diren gainerako printzipioak bete beharko dira, eta Errebal Udal Merkatuan legez eraturako langileen elkarteari entzunaldia eman beharko zaio.

III. Kapitulum. Eskubideen subrogazioa heriotzagatik.

25. artikulua

1. Emakida finko baten titularra hiltzen bada edo testamentuzko oinordetza egiten bada, Kode Zibilaren 807. artikuluan jasotako nahitaezko jaraunsleak titularraren eskubide eta betebeharretan subrogatuko dira, Udalari jaraunsle-izaera aitortu eta hurrengo hiru hilabeteetan aurkeztutako eskaeraren bidez.
2. Testamenturik gabeko oinordekotzetan, subrogazio berbera gertatuko da, eta nahitaezko jaraunsleek beren eskubideen aitortpena eskatu beharko dute titularra hil eta hurrengo 6 hilabeteetan.
3. Gradu beraren barruan lehentasuna izango dute, heriotzaren aurreko urte osoan zehar gutxienez, saltokian azken lankidetza ohikoa, pertsonala eta zuzena izan dutela frogatzen dutenek. Aurrekoa gorabehera, testamentua badago, lanpostua jaraunslearen alde eskualdatuko da.
4. Heriotzaren ondoriozko lagapenetan, emakidak pertsona fisiko bakar bati eskualdatu beharko zaizkio, edo, eskubidea pertsona bati baino gehiagori dagokienean, pertsona juridiko bati, zeinaren eraketa pertsona horiek guztiek egiletsiko duten. Kasu horretan ere, eskubidea duten pertsonak beren artetik aukeratu ahal izango dute emakidan subrogatu behar dena, gainerakoek dagokien eskubideari uko egin ondoren.

26. artikulua

Subrogazioa gauzatzeko eskubidea duten pertsonak Eibarko Udalean eskatu beharko dute eskubide hori, beren interesekoak diren dokumentu guztiak aurkeztuta, eta



aurkeztutako agirien arabera baino ez da ebatziko. Hala ere, eskualdaketa horiek eskubide hobegoko frogak aurkeztearen mende geratuko dira, betiere inguruabar hori goian ezarritako epearen barruan gertatuz gero.

27. artikulua

1. Kasu bietan, pertsona eskuratzailleak behartuta daude eskualdaketa gauzatu eta hurrengo urte natural osoari dagokion kanonaren urteko kuota bat alde aurretik ordaintzera, eskualdatze-eskubide gisa.
2. Jaraunslarik ez balego, edo eskubidearen aitortzea epe barruan eskatuko ez balitz, lizentzia iraungitzat jo eta Udalaren esku geldituko da.

IV. Kapituluak: Inter vivos egintzen bidezkoa eskualdaketa

28. artikulua

1. Hurrengo atalean aipatzen diren kasuetan izan ezik, emakidak ezin izango dira inter vivos egintzen bidez eskualdatu beren indarraldiko aurreneko bi urteetan, emakida-titulua sinatzen denetik zenbatuta.
Honako egoera hauek salbuetsita daude aurreko kasutik:
 - a) emakidadun titularraren erretiroa.
 - b) gertatzezko ezintasuna lanean jarduteko.Kasu bietan, eskualdaketarik ez badago, saltokia Udalaren eskuetan geratuko da. Eskualdaketa badago, ostera, lagatzaileak ez dio ordaindu beharko Udalari inolako eskubide edo tasarik eskualdaketagatik.
2. 2 urteko aldia igaro ondoren, titularrek emakidak eskualdatu ahalko dituzte inter vivos egintzen bidez. Betiere lagapen-hartzaileek merkataritza-praktikak berezkoak dituen gaitasun- eta bateragarritasun-baldintzak bete beharko dituzte.
3. Artikulu honen 2. zenbakian aipatzen diren eskualdaketen kasuan, eskualdatze-eskubideagatik Udalari ordaindu beharko zaion zenbatekoa eskualdaketa egiten den urte naturalari dagokion kanonaren urte bikoia izango da.



29. artikulua

Emakida finkoak beste pertsona batzuei eskualdatu ahal izango dizkiete titularrek, emakidatik geratzen den denborarako eta hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintza eta prozedurekin bat etorritz. Eskualdaketak Eibarko Udalak baimendu beharko ditu, interesdunak akreditazioa aurkeztu ondoren.

30. artikulua

Eskualdaketaren funtsezko baldintzak hauexek dira:

- a) Eskualdatzaileak gutxienez bi urte eraman behar ditu eskualdatu nahi dituen emakida-eskubideak benetan baliatzen.
- b) Pertsona titular berriak 21. artikuluan ezarritako baldintzak bete behar ditu.
- c) Eskualdatzaileak Azokarekin dituen obligazio ekonomikoak ordainduta eta eguneratuta eduki behar ditu.
- d) Eskualdatzaileak hurrengo artikuluetan xedatutakoa bete beharko du, lehentasunez eskuratzeko eskubidea aitortzeari eta baliatzeari dagokionez, eta hori horrela dela Eibarko Udalaren aurrean behar bezala egiaztatu beharko du.
- e) Eskualdatzaileak eskualdaketagaik dagozkion eskubideak ordainduko dizkio Eibarko Udalari 10 eguneko epean, eskualdaketaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik zenbatuta.

31. artikulua

Inter vivos egintzen bidezko eskualdaketetan, eta, baldin eta, eskualdaketa pertsona fisiko batetik beste pertsona juridiko batera egiten bada, eta aurrenekoak gutxienez % 33ko partaidetza badu, honako hauek izango dute eskubidea lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko edo lehenetsitako eskurapenerako, honako ordenaren arabera:

- a) Eibarko Udalak
- b) Eskualdatzailearen konturako langileek, baldin eta beren zerbitzuak dagokion postuan edo merkataritza-gunean modu jarraituan eman badituzte, gutxienez eskualdaketaren aurreko hiru urteetan. Aukera bera duten pertsona bat baino gehiago badago, eskubidea pertsona horiek guztiek emandako baimenaz



eraturako pertsona juridiko batek baliatuko du, salbu eta interesa ez duenak idatziz eta berariaz ezetz esaten badu.

32. artikulua

1. Emakida finko baten titularrak, saltokia eskualdatu nahi badu, modu frogagarrian jakinarazi beharko die alderdi hori aurreko artikuluan aipaturako eroslehentasun-eskubidea duten pertsoneri, eta berariaz adieraziko die eskualdaketa zer kopuru eta baldintza ekonomikotan hitzartzen den. Lehentasunez eskuratzeko eskubidearen titularrek 30 egun naturaleko epea edukiko dute eskubide hori baliatzeko, prezio eta baldintza berberetan, eta horrela jakinaraziko diote eskualdatzaileari, zeinak, betiere, 31. artikuluan aipatzen den lehentasun-hurrenkera errespetatu beharko baitu.
2. Lehentasunez eskuratzeko eskubidearen titularrek atzera-eskuratzeko eskubidea izango dute, eskualdatzailearen jakinarazpenik izan ezean, edo jakinarazpenean eskaturako baldintzetako edozein jasotzen ez denean, edo eskualdaketa benetako prezioa txikiagoa denean, edo haren funtsezko baldintzek kostu txikiagoa dutenean. Atzera-eskuratzeko eskubidea iraungi egingo da eskualdatzaileak egin beharreko jakinarazpena egin eta hurrengo 30 egun naturalen buruan. Jakinarazpen horretan berariaz aipatuko da eskualdaketa zer baldintzatan egin den eta formalizatu deneko dokumentuaren kopia. Nolanahi ere, iraungi egingo da lehentasunez eskuratzeko eskubidearen titularrek eskualdaketa berri izan eta 30 egun naturaleko epean.
3. Artikulu honetan aipatzen diren jakinarazpenak egiteko, interesdunak edo haren ordezkariak jaso dituela egiaztatzeko bitartekoren bat erabiliko da; egiaztatu beharko da baita ere zer egunetan jaso diren eta baita haien edukia ere.

33. artikulua

Emakida finkoa ezkontideen artean (edo antzeko harreman afektiboa duten pertsonen artean) gertatzen denean, edo gurasoek seme-alabei egindakoa denean edo alderantziz, ez dira aplikatuko 31. artikuluan aipatzen diren lehentasunez eskuratzeko arauak.



V. Kapituluua. Emakida-eskubideak trukatzea

34. artikulua

Eibarko Udalak, interes orokorreko arrazoi justifikatu baten ondorioz, ofizioz edo interesdunek eskatuta, bertako saltokiak trukatzea sustatu edota baimendu ahal izango du. Trukatutako saltoki baten titularrak hutsik egon den saltoki bat eskuratzen badu, saltoki hori modu pribatiboan erabiltzeko eskubidea izango du aurreko emakidatik geratzen zaion denborarako eta erabilera berriko postuari aplikagarri zaion prezio publikoa ordaindu beharko du. Arau berberak aplikatuko dira trukea okupatutako saltokien artean egiten denean. Trukearen xede diren saltokien titularrek, gutxienez urtebete eraman beharko dute emakida-eskubidea benetan baliatzen, eta saltoki berrian eskubide hori baliatzen jarraituko dute, hasieran emandako emakidatik geratzen den denboran zehar. Truke-kasuetan, ez dira aplikatuko 31. artikuluan jasotako lehentasunez erosteko edo atzera erosteko edo lehentasunezko eskurapenerako arauak, ez eta 32. artikulua 3. atalak aipatzen duen ordaintzeko obligazioa ere.

III. Tituluua. Emakida-eskubideak iraungitzea

35. artikulua

1. Merkataritza-guneetako saltokien edo espazioen erabilera pribatiborako emakida-eskubideak iraungitzeko arrazoiak hauek dira:
 - a) Erabiltzailearen edo emakidadunaren heriotza edo gertatzezko ezintasuna, edo nortasun juridikoaren iraungipena.
 - b) Epea amaitzea.
 - c) Emakida berreskuratzea —aurretik kalte-ordaina ordainduta—; edo alde batek baimena ezeztatzea.
 - d) Alde biek adostea.
 - e) Ondasunaren desafektazioa; kasu horretan likidatu egingo da, Administrazio Publikoen Ondare Legearen 102. artikulua aurreikusitakoaren arabera.
 - f) Kanona bi hilabetez jarraian edo hiru hilabetetan (txandaka) ez ordaintzea.
 - g) Eibarko Udalaren alde aurreko baimenik gabe emakida lagatzea edo eskualdatzea.
 - h) Instalazioen kontserbazioari buruz udal zerbitzu teknikoek emandako jarraibideak behin eta berriz ez betetzea.



- i) Emandako jabari publikoko ondasunak Ordenantza honetan edo dagokion herri-jabariko emakida arautzen duten agirietan berariaz adierazitakoez bestelako erabileretarako baliatzea, Udalbatzaren baimenik gabe.
 - j) Saltokietan obrak egitea aurretiazko lizentziarik eduki gabe.
 - k) Jarduera hiru hilabete baino gehiagoan ez gauzatzea, Udalaren berriazko baimena izan ezean.
 - l) Adjudikaziodunak kontratuz dituen obligazioak behin eta berriz ez betetzea. Halakotzat hartuko da, emakidadunari, kontratuko betebeharrak ez betetzeagatik, urtebetean 3 zigor ezarri zaizkionean.
 - m) Ondasuna desagertzea edo aprobetxamendua agortzea.
2. Emakidadunak ez duela bete-eta kontratua suntsiarazteko, emakidadunari alde zurretik ohartarazi beharko zaio, eta kontraesaneko espedientea izapidetu.
3. Ez-betetzeagatik kontratu-suntsiarazpenak ondorio hauek izango ditu:
- a) Emakidadunari kendu egingo zaio emakida bidez eman zitzaien Udalaren Merkatu Plazako saltokiaren erabilera pribatiboa.
 - b) Emakidadunak behin betiko bermea galduko du eta Udal Administrazioari eragindako kalte eta galeren ordaina ordaindu behar du.
4. Emakida-eskubidea iraungita saltoki bat hutsik geratu dela deklaratzegatik lokal bat hustu behar bada, aurreko titularrari 30 egun naturaleko epea emango zaio lokala bere borondatez husteko; bestela, premiamendu, kaleratze eta aplikazio subsidiarioaren bidez jardungo da haren kontra, eta salgaiak eta tresnak horretarako adierazitako lekuan utziko dira titularraren esku.

IV. Titulua. Eibarko udal azokaren funtzionamendu-arauak

I. Kapituluak. Xedapen orokorrak

36. artikulua

Azoka zabaltzeko eta ixteko ordutegia, bai eta urteko funtzionamendu-egutegia ere Eibarko Udalak ezarriko du. Artikulu honetan ezarritakoa merkataritza-jarduera oro har arautzen duten legezko eta erregelamenduzko xedapenetan jasotako zehaztapenetara egokitu beharko da.

37. artikulua



Eibarko Udalak azokako barne-araudiaren bidez finkatuko ditu merkantzien sarrera-irteerak, Errebal Merkatuan jarduten duten pertsonen sarbidea, zamalanak eta Merkatuaren barne-funtzionamenduari dagozkion beste edozein jarduera.

38. artikulua

Errebalgo Udal Azokan ezingo da egin inolako jarduerarik, baldin eta aldez aurretik ez bada baimenik eman.

39. artikulua

Errebalgo Udal Merkatuan, jendeak ikusteko moduan, iragarki-taula bat egon beharko da, langile, kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako intereseko abisu, ohar eta iragarkiak erakutsiko dituen.

40. artikulua

1. Errebalgo Udal Merkatuko saltoki bakoitzean behar beste erreklamazio-orri egon beharko dira eskuragarri, indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.
2. Errebalgo Udal Merkatuan eta administrazioaren zaintzapean, halaber, pisu-baskula bat eta arauzko metro bat egon beharko dira, jendeak erositako produktuen pisu- eta neurketa-egiaztapenak egin ahal izan ditzan.
3. Errebalgo Udal Merkatuaren sarreretan honako hau jarriko da ondo ikusteko leku batean: "Errebalgo bulegoetan eskuragarri daude erreklamazio-orriak eta pisatzeko eta neurtzeko tresnak".

41. artikulua

Debekatuta dago produktuak sartzea merkatuan, baldin eta ez badute jatorriaren albaranik, non salgaiaren genero-mota, prezioak, kantitateak edo pisua eta halako dokumentuetan eska daitezkeen datuak jasotzen dituen. Albaranak Merkatuko Administrazioaren eta ikuskaritza-zerbitzuen esku jarri beharko ditu merkataria, hori egitea eskatzen zaion guztietan.



II. Kapitulumua. Merkataritza-guneetako saltoki eta espazioen emakidadunen obligazioak

42. artikulua

1. Emakidadunak esleitutako saltoki edo espazioan egin beharko du baimendutako jarduera, ez beste inon. Puntu honetan ezarritakoaren urraketatzat eta falta astuntzat hartuko da merkataritza sustatzeko edo bestelako helburuz egindako beste edozein eratako jarduera, baldin eta aldez aurretik baimendutako jarduera gainditzen badu eta beste merkatarari baten jarduerarekin talka egiten badu.
2. Jarduera-aldaketak Eibarko Udalak baimenduko ditu, aldaketa horrek merkatuaren interes orokorreki dakarzkien onurak egiaztatu ondoren, eta jendaurrean jarriko dira, Merkatuaren Oholean argitaratuz eta bertan legez eraturako elkarteei jakinaraziz.

43. artikulua

Emakidaren titularrak uneoro izan beharko ditu egunean bere betebeharrak fiskalak, lan-eremukoak eta aplikatzekoak diren legezko eta erregelamenduzko xedapenen arabera eska daitezkeen gainerako guztiak.

Puntu honetan ezarritakoa ez betetzea falta astuntzat hartuko da.

44. artikulua

Emakidaren edozein modalitatearen bidez pertsona fisiko bati esleitutako merkataritza-saltokien edo -espazioen ardura honako pertsona hauek izango dute, era ohizkoan, pertsonalean eta zuzenean:

- a) Lizentziaren titularra den pertsonak berak edo haren ezkontideak (edo antzeko harreman afektiboa duen pertsonak) edo,
- b) Titularraren seme-alabek edo bilobek,
- c) Titularraren edo haren ezkontidearen gurasoek edo anai-arrebek.

Saltokiaren ardura duten pertsonak alta emanda egon beharko dute beren konturako langileentzako edo autonomoentzako Gizarte Segurantzaren araudi berezian, edo araudi orokorrean, titularrarekin lan-harreman bat dagoenean.



45. artikulua

Emakidaren edozein modalitateren bidez pertsona juridiko bati esleitutako merkataritza-saltokien edo -espazioen ardura honako pertsona hauek izango dute, era ohizkoan, pertsonalean eta zuzenean:

- a) Hura osatzen duten bazkideek, beren konturako langileentzako edo autonomoentzako Gizarte Segurantzaren araubide berezian sartuta daudenean.
- b) Haren ordezkariak, lan-harreman bat dagoenean haien eta emakidaren titularraren artean, eta pertsona horiek Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta emanda daudenean. Pertsona horiek Eibarko Udalaren berariazko baimena izan beharko dute.

46. artikulua

Baimendutako pertsonak edo titullarrek emakidaren titularraren mende dauden eta Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartuta dauden besteren konturako langileen laguntza eduki ahal izango dute; halaber, Eibarko Udalaren berariazko baimena izan beharko dute.

47. artikulua

Eibarko Udalak edozein unetan gainbegiratu ahalko du aurreko artikuluetan ezarritakoa betetzen dela, eta titularrari akreditazio-dokumentazioa eskatu ahalko dio. Obligazio horiek ez betetzea eta eskatutako dokumentazioa adierazitako epean ez aurkeztea emakidaren eskualdaketa irregulartzat hartu ahal izango da.

48. artikulua

1. Emakida baten titularra edo haren izenean edo haren mende jarduten duten pertsona baimenduak ezin izango dira egon esleitu zaien lokala ez den beste batean. Titular emakidadunak ezin izango du jardun beste titular baten kontura edo haren mende.
2. Aurreko atalean ezarritakoa ez betetzea, kontrakoa frogatzen ez bada, emakidaren eskualdaketa irregulartzat hartu ahalko da.



49. artikulua

1. Merkatuan lanean diharduten pertsonak nahitaez erakutsi eta iragarri beharko dituzte eskainitako produktu eta zerbitzu guztiak, eta, berariaz, argi eta zehatz adierazi beharko dituzte salgaien prezioak, eta, hala badagokio, produktuek etiketatuta egon beharko dute, indarrean dagoen legeriaren arabera. Debekatuta dago produktu edo zerbitzuak iragartzea, erakustea edo saltzea, baldin eta hori egiteko moduak kontsumitzaileengan nahasmena edo gaizki-ulertuak eragin baditzake, produktuen kalitateari, jatorriari eta ezaugarriei dagokienez.
2. Saltzaileek —salbu eta interesdunak uko egiten badu— eragiketaren, edo, kasua bada, aurrekontuaren erreziboa, ziurtagiria, kopia edo egiaztagiria entregatuko dute.
3. Pisatu edo neurtu beharreko artikulua dituzten saltokiek baskula eta arauzko metroa eduki beharko dituzte.
4. Eibarko Udalak, aldizkako ikuskapenen bidez, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak defendatu eta babesten direla zainduko du, indarrean dagoen legeriak ezarritako moduan.

50. artikulua

1. Emakidaren xede diren saltoki eta espazioak kontserbatzea eta konpontzea, bai eta aplikagarri diren legezko eta erregelamenduzko xedapenetan ezarritako eskakizunetara egokitzea ere, titularren kontura izango da; horretarako egiten zaizkien errekerimenduak bete beharko dituzte, alde batera utzi gabe, kasu bakoitzean lortu behar dituzten baimen edo lizentziak.
2. Egokitzapen- edota hobekuntza-obrak Eibarko Udalak baimenduko ditu, bidezkoak diren txosten sanitarioak edota teknikoak jaso ondoren, eta eskatzaileak proposatutako obren ezaugarri teknikoak egiaztatu ostean. Horretarako, eskatzaileak, egin beharreko lanen izaeraren arabera, behar besteko dokumentazioa aurkeztu beharko du.
3. Lokaletan egindako obren ondorioz hobekuntzak egiten badira, Eibarko Udalaren onurarako izango dira, inolako kontraprestaziorik gabe.

51. artikulua



Saltokiko erabiltzaileak behartuta daude, Merkatuaren jardunbide egokirako, haren administraziotik jasotzen dituzten aginduak eta jarraibideak betetzera.

52. artikulua

Emakidadun titularrek uneoro mantendu beharko dituzte esleitutako saltokiak eta espazioak higiene- eta osasun-baldintza egokietan, eta, beren jarduera gauzatzean, aplikatu beharreko legezko eta arauzko xedapenak bete beharko dituzte.

53. artikulua

Beren jarduera egitean elikagaiak manipulatu behar dituzten pertsona guztiek, osasunaren ikuspegitik horretarako gaitasuna dutela dioen txartela edo agiria izan beharko dute.

54. artikulua

1. Emakidaren titularrek edo haiek ordezkatzeko dituzten pertsonak osasun-ikuskaritzarekin lankidetzan jardun beharko dute, eta, horretarako, eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztu; halaber, ikusgai dituzten edo biltegitatuta dauden artikuluen azterketa erraztu beharko dute, betiere merkatuaren barruan badaude; era berean, ez diete inolako eragozpenik jarriko ikuskaritza horrek agindutako konfiskazioei edo ibilgetzei, edo beharrezkotzat jotzen dituen lagin-hartzei.

2. Aurreko atalean xedatutakoa urratuz gero, osasun-ikuskaritzak ahalmena izango du bidezko jotzen dituen kautelazko neurriak hartzeko, bai eta saltokia berehala ixteko edota jarduera gerarazteko ere.

55. artikulua

Emakidak esleitzen diren egunetik aurrera, adjudikaziodunak behartuta egongo dira zerbitzuen aprobetxamenduagatik eta lanpostuak eta instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak ordaintzera, dagozkien ordenantza fiskaletan eta prezio publikoen ordenantzetan ezarritako zenbatekoan eta moduan. Titular emakidadunek beren kontura ordaindu beharko dituzte uraren, elektrizitatearen,



zerbitzuen eta saltokien titulartasuna dela-eta haiei egotz dakizkiekeen beste edozein betebeharraren ekonomikoren gastuak, kontagailuetan erregistratutako kontsumoen arabera. Kontagailuek gaizki funtzionatzen badute edo kontagailurik jartzeko premiarik ez dagoen kasuetan, egindako kontsumoei edo gastuei dagozkien zenbatekoak kalkulatzeko orduan, zerbitzuaren funtzionamendu-arauak aplikatuko dira, edo, bestela, benetan egindako kontsumoak.

56. artikulua

Establezimenduak zabalik egongo dira ezarritako ordutegian, salbu eta Merkatuaren administrazioak behar bezala egiaztatutako arrazoi justifikatu batengatik aurretiazko baimena ematen badu.

57. artikulua

Erakusgaiek edota salgaiek baimendutako tokian egon beharko dute. Ezingo da kaxarik, enbalajerik edo halako beste objekturik jarri ez lokalen kanpoaldean, ez eta merkatuko erabiltzaileen igarobidea oztopatzeko moduan ere.

58. artikulua

Emakidadun titularrek lokal, biltegi, hotz-ganbera eta antzekoetan Merkatuko zerbitzuak exijitzen dituen konponketak onartu beharko dituzte, eta zerbitzu komunek eskatzen dituzten zortasunak baimendu.

59. artikulua

Emakidadun titularrek merkatuko instalazioen funtzionamendu egokia eta kontserbazioa bermatu beharko dute, eta zuzenean erantzun, titularrek berek, haien izenean diharduten pertsona baimenduek edo horien mendekoek instalazio horietan eragin ditzaketan kalteengatik.



III. Kapituluua. Merkataritza-guneetako saltoki eta espazioen emakidadunen eskubideak

60. artikulua

Errebalgo Merkatuan diharduten pertsonak beharrezkoak diren segurtasun-neurriak hartu beharko dituzte, beren establezimenduetan lapurretak egitea saihesteko. Eibarko Udalak ez du bere gain hartzen benetako zaintza propio baten erantzukizuna, nahiz eta Merkatuari ordena-zerbitzu bat eman. Alde horretatik, ez du bere gain hartuko ekintza bandalikoak, lapurretak edo ebasketak egiteagatik merkatuan jarduten duten pertsonak jasan ditzaketen kalte eta galeren erantzukizuna.

61. artikulua

II. Tituluan aipatzen diren subrogazio eta mortis causa eta inter vivos eskualdaketa-eskubideez gain, emakidadunaren eskubideak dira:

- a) Emakidaren xede diren herri jabariko ondasunen erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu baketsua.
- b) Udal administrazioak Merkatutako zerbitzu orokorrak baldintza ezin egokiagoetan mantentzea.
- c) Udal administrazioak entzun eta behar bezala artatzea, egin ditzakeen erreklamazio, eskabide eta iradokizun orotan.
- d) Errebalgo Merkatuari lotutako elkarte baten bidez ordezkaturia egotea.

62. artikulua

Errebalgo Udal Azokan diharduten eta bertan finkatuta dauden pertsonak ordezkari-izaerako eta izaera demokratikoko elkarteetan egon ahalko dira; elkarte horiek pertsona hauen eskubide eta interesak defendatzeaz arduratuko dira, eta haien ordezkari gisa jardungo dute Merkatuko Administrazioarekin eta Eibarko Udalarekin dituzten harremanetan.

V. Titulua. Faltak eta zehapenak



I. Kapituluua. Faltak

63. artikulua

1. Erantzukizun zibila, penala edo beste edozein eratakoa gorabehera, emakidadun titularrek eta prekario-izaera hutseko beste batzuek bere gain hartuko dute berek egindako edo beren izenean edo beren mende jarduten duten pertsona baimenduek egindako arau-hausteen erantzukizuna, ordenantza honetako xedapenak edo aplikatzekoak diren administrazio-arauak urratzeagatik.
2. Eibarko Udalari dagokio zehapen-espedienteak irekitzea eta izapidetzea; tramite horiek, nolahi ere, aplikagarri diren prozedura-xedapenetan ezarritakoari egokituko zaizkio.
3. Saltokien titularrei ezartzen zaizkien zigorrak independenteak dira arauak ez betetzeak Eibarko Udalari edo haren aurka errepikatzeko eskubidea duten hirugarrenei eragiten dizkien kalte-galeren ordaina emateko betebeharretik.

64. artikulua

Hutsegiteak arinak, astunak eta oso astunak izango dira.

65. artikulua

Falta arinak izango dira:

1. Zuzenak ez diren jarrerak izatea Merkatuan jarduten duten gainerako pertsonekin, publikoarekin, Merkatuko langileekin edo haien mendekoekin eta Merkatuan esku hartzen duten agintaritzako funtzionario edo agenteekin, ordena hausten ez duten heinean.
2. Ontziak, salgaiak edo bestelako objektuak baimenduta ez dagoen leku batean jartzea.
3. Lanerako jantzi egokiak ez jantztea edo txukun eta garbi ez dauden arropak erabiltzea.
4. Merkatuaren Administrazioak emandako jarraibideak ez betetzea.
5. Udalari pertsona titular emakidadunaren helbide-aldaketaren berri ez ematea.
6. Saltokia ez irekitzea eta ixtea ezarritako ordutegiaren arabera.



7. Salmenta edo merkataritza-jarduera saltokitik kanpo egitea, bai eta salgaiaren izaera edo prezioa oihuka esatea, erosleen arreta erakartzeko.
8. Osasun edo Kontsumo Ikuskaritzaren jarraibideak inoiz edo behin ez betetzea.
9. Agiri honetako beste sailkapenik aurreikusten ez zaizkien xedapenen hutsegiteak.
10. Zamaletarako gunea oztopatzea.

66. artikulua

Falta astunak izango dira:

1. Falta arin bat egitea, sei hilabete baino gehiago igaro ez direnean falta arinagatik jarritako aurreko zehapena ezarri zenetik.
2. Lokal bat ixtea bost eguneraino jarraian edo bost eguneraino (txandaka), urtebeteko epean, Udalaren alde aurreko baimenik gabe, betiere behar bezala egiaztatutako ezinbesteko arazoiren batengatik izan ez bada.
3. Ordena haustea eragiten duten istiluak eragitea.
4. Ez jasotzea lokalen jardueratik sortutako hondakinak, zaborrak eta balio ez duten objektuak hermetikoki itxita dauden eta garbigarriak diren ontzietan, eta hondakin horiek ez uztea horretarako adierazitako lekuan.
5. Lokala eta haren inguruko pasilloaren eremua osasungarritasun-, higiene- eta garbitasun-baldintza egokietan ez edukitzea.
6. Udalak berariaz baimendu ez dituen pertsonak establezimenduez arduratzea.
7. Jendeari erakusgai dauden salgaiak saltzeari uko egitea, jarrera horretatik jokabide maltzurak ondorioztatzen badira.
8. Produktuak kentzea edo salmentatik erretiratzea, prezioa mantentzearren edo igotzearren.
9. Saltokiez arduratzen diren edo laguntzen duten pertsonak ez egotea sartuta dagokien Gizarte Segurantzaren araubidean, indarreko lan-arloko legedia ez betetzea, eta dagokion hitzarmen kolektiboa ez betetzea.
10. Nabarmen eta behin eta berriz men ez egitea Udalaren edo Administrazio Publikoen mendeko langileen jarraibideei, haiek ikuskaritza-lanetan dihardutenean.
11. Ez gordetzea emakidadun titularrak egindako erosketen egiaztagiria eta negozioari dagozkion gainerako agiriak, legez nahitaezkoa den denboran.



12. Merkataritza sustatzeko edo bestelako helburuz egindako beste edozein eratako jarduera egitea, baldin eta aldez aurretik baimendutako jarduera gainditzen badu eta beste merkatarri baten jarduerarekin talka egiten badu.
13. Ez egotea egunean zerga-betebeharretan, lan-betebeharretan eta aplikatzekoak diren legezko eta erregelamenduzko xedapenen arabera eska daitezkeen gainerako betebeharretan.

67. artikulua

Falta oso astunak izango dira:

1. Falta astun bat egitea, urtebete baino gehiago igaro ez denean falta astunagatik jarritako aurreko zehapena ezarri zenetik.
2. Lokal bat ixtea bost egun edo gehiagoz jarraian edo txandaka, urtebeteko epean, Udalaren aldez aurreko baimenik gabe, betiere behar bezala egiaztatutako ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ez bada.
3. Ordena haustea edo edozein eskandalu edo istilu eragitea, pertsoneri edo gauzei kalte egiten zaienean.
4. Falta oso astuntzat jotzen diren egitateak egitea, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak defendatzen dituzten osasun-arau aplikagarrien arabera.

II. Kapituluak. Zehapenak

68. artikulua

Alde batera utzita zerga-arloan, osasun-arloan, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsan eta beste edozein arlotan indarrean dauden xedapenak aplikatzearen ondorioz ezar daitezkeen zehapenak, Ordenantza honetako faltek zehapen hau izango dute:

- a) Falta arinak: 600 eurorainoko isuna.
- b) Falta astunak: 601-3.000 eurorainoko isuna.
- c) Falta oso astunak: 3.001-10.000 eurorainoko isuna.

VI. Titulua. Titular emakidadunen obligazio ekonomikoak zehaztea



69. artikulua

Saltokiak, merkataritza-guneetako espazioak eta instalazio osagarriak modu pribatiboan erabiltzeagatik prezio publikoak kasuan kasuko ordenantza fiskaletan eta prezio publikoen ordenantzetan ezarriko dira, eta ordenantzek ezarritako moduan ordainduko dira.

70. artikulua

Prezio publikoak toki ogasunen foru-arauan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko dira, eta Eibarko Udalari dagokio haiek kobratzea.

71. artikulua

Aurreko artikuluetan ezarritakoa gorabehera, Eibarko Udalak, prezio publikoak zehazteko orduan, honako obren kostuak hartuko ditu kontuan: Merkatuko eraikinak, instalazioak eta zerbitzuak hobetzeko egindako lanak, eskumena duen osasun- edo hirigintza-agintaritzak hala eskatzeagatik egin behar diren obrak, edo eraikina edo haren instalazioak kontserbatzeko beharrezkoak direnak.

72. artikulua

1. Beharrezkoak diren obrak edo esku-hartzeak Eibarko Udalak erabakiko ditu, ofizioz, eta horietatik eratorritako gastuak afekzioaren arabera eskatu ahal izango zaizkie emakida finkoen eta berezien titularrei, oro har esleituta duten prezio publikoaren arabera, eta gutxienez obra horiek egikaritzeari lotutako aurrekontu-ekitaldietan zehar. Ezohiko izaeraz eta egin beharreko gastuaren zenbatekoaren arabera, Eibarko Udalak eskatu ahal izango du beharrezkoak diren obren edo esku-hartzeen kostuak aldeztu aurretik ordaintzea, hurrengo urterako aurreikusitako zenbatekoaren arabera. Ezin izango da beste urteko kuota bat aurreratzeko eskatu, baldin eta aurrerapena eskatu zeneko obra edo beharrezko esku-hartzea egin ez bada. Nolanahi ere, kontzeptu honengatik jasotako kopuruak ezarritako obrak gauzatzearen mende geratuko dira.

73. artikulua.



1. Merkatuko eraikinen, instalazioen edo zerbitzuen hobekuntza xede duten eta beharrezko-izaera ez duten obren egikaritzeak honako prozedura izan beharko du onartuak izateko:

a) Eibarko Udalak, proposatutako hobekuntzek eragindako titular emakidadun guztiak banan-banan deituko ditu Batzar Nagusi batera, gutxienez bilera egin baino 10 egun natural lehenago, aztertu beharreko gaia, ordua, eguna eta tokia berariaz adieraziz.

b) Batzarraren buru Merkatuko gestioan eskumena duen Zinegotzigoaren titularra izango da, eta idazkaria instalazioaren administratzailea.

c) Batzarrera titularra bera edo haren ordezkoa joan ahal izango da, eta ordezkaritza hori egiaztatzeko nahikoa izango da idazki bat aurkeztea pertsona fisikoak berak edo pertsona juridiko titular emakidadunaren ahalordea duen ordezkariak sinatua; bi kasuetan Nortasun Agiri Nazionala adierazi beharko da. Adingabekoek edo desgaitasunen bat dutenek haien lege-ordezkaritza duenaren bidez jardungo dute.

d) Batzar Nagusia balio osoz eratuko da lehenengo deialdian, Merkatuan esleitutako emakiden bi herenak ordezkatzeko dituzten titular emakidadunen bi herenak bertan direla, eta bigarren deialdian, ordubete geroago, esleitutako emakiden erdia gehi bat ordezkatzeko duten titularrak bertan direla.

e) Akordioak baliozkoak izateko, nahikoa izango da emakida-araubidean esleitutako metro koadro gehienak ordezkatzeko dituzten titularren bosten batek alde bozkatzea.

f) Gehiengo ezin bada lortu aurreko paragrafoetan ezarritako prozeduraren bidez, Eibarko Udalak erabakiko du zer egin, ofizioz edo Azokako langileek hala eskatuta, halako elkarterik balego.

2. Artikulu honetan aipatzen diren obra edo esku-hartzeengatik esleitutako gastuak emakidadun titularrek ordainduko dituzte, 73. artikuluan lehenengo paragrafoan beharrezkoak diren obra edo esku-hartzeetarako ezarritako moduan, ez bada Batzar Nagusian eta aho batez beste ordainketa-modu bat erabakitzen.

Xedapen gehigarriak

Lehen xedapen gehigarria: Prezio publikoak berrikustea eta aldatzea.

Urtebeteko epean gehienez ere, Eibarko Udaleko Ekonomia Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailak txosten-proposamen bat egin beharko du Errebalgo Udal Merkatuan



jabari publikoaren aprobetxamendu pribatiboagatiko prezio publikoak berrikusteko eta aldatzeko, langileen ordezkartzari horren berri eman ondoren.

Bigarren xedapen gehigarria. Ikuskaritzarako gaitutako langileak.

Ikuskaritza-lanak egin ahal izango dituzte organo eskudunak horretarako gaitzen dituen funtzionarioek.

Azken/Amaierako xedapenak

Lehen azken/Amaierako lehen xedapena. Ordenantza interpretatzea.

Merkatuen gestioan eskumena duen Zinegotzigoaren titularrak eskumen du ordenantza honen aplikaziotik sortzen diren gai guztiak interpretatzeko eta ebazteko.

Bigarren azken/Amaierako bigarren xedapena. Onartzea eta indarrean sartzea.

Ordenantza hau indarrean sartuko da, Udalbatzaren Osoko Bilkurak behin betiko onartu ondoren, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitako moduan, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak emandako idazkeran.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetuta geratzen da berariaz Eibarko Merkatu Plazaren Ordenantza eta haren maila bereko edo beheragoko gainerako edozein arau, Ordenantza honen aurka badoaz.